# 20 16

## URUMEAKO GABARRARIAK

1966. urtera arte, “gabarrariak” izenekoak arduratzen ziren Urumea ibaiaren ahokaduran biltzen ziren hondar multzo ugaria ekonomikoki ustiatzeaz. Langile gogor horiek izen horrekin ezagutzen zituzten hondarra ateratzen eta garraiatzen zutelako egurrezko gabarra txikien bitartez. Horiek 15 m inguruko luzera eta 2,5 m zabalera zuten. Sakonera gutxi zuten, ibaietako ontziak bezala, nahiz eta txikixeagoak eta estuxeagoak ziren beste batzuk bazeuden. Euren palekin kargatzen zituzten, askotan itsasadarraren barrualdetik.

Uneren batean, mekanizazio txiki bat sortu zen: “chuponas”, hondarra ateratzeko lana errazten zutenak.

Indar eragile nagusia gizakiarena zen: hura ibaiaren hondoan aplikatzen zen pertika baten bidez (edo agaia). Itsasaldien erritmoa ondo aprobetxatzen zuten, hots; itsasbehera erabiltzen zuten Urumeako ahokadurara iristeko eta itsasgora, berriz, kaietara iristeko. Horiek Loiola auzoan kokatuta zeuden, hondarra ateratzen zuten gune nagusietatik 3 kilometro ingurura, itsaso gora, María Cristina eta Zurriola zubien artean.

Ateratako produktuen artean hondar beltza aurkitzen zen, ibai jatorrikoa. Hura ibai gora aurkitzen zen



*Hiru gabarra Urumea ibaian, 1961. urtean, Zurriola eta Santa Catalina Donostiako zubien artean (azken hura argazkiaren atzean). CC BY SA. Iturria: Gure Gipuzkoa. Fondo Marín. Paco Mari. Kutxa Fototeka.*




*Gabarra bat, popaldean, horren gainean gabarraria, ura gerrialdetik duela, hondarra bordetatik gertu botatzen ari da.*


*Ondoren, hondarra berriz jartzen zuten multzo bat atzealdean eta beste bat aurrealdean osatzeko. Gabarrak Zurriola eta Santa Catalina zubien artean aurkitzen dira, azken hura argazkian ikusten den azkena izanik.*

*CC BY SA. Iturria: Gure Gipuzkoa. Fondo Marín. Paco Mari. Kutxa Fototeka.*

María Cristina zubi parean, eta hondar zuria, berriz, gabarrarien xeda zen, itsasotik gertuen zegoen zonaldean. Legarra harri eta hondarraren arteko nahasketa bat zen, lehenengoaren kopurua bigarrenarena baino handiagoa zela.

Material horiek hainbat gauzetarako erabiltzen zituzten: zementu morteroa sortzeko baserriak eraikitzeko, behientzako ohea egiteko, lurrarekin nahastuta baratzen nekazaritza emaitzak hobetzeko, etab. Pixkanaka, hondar ekoizpenaren eskaera jaisten hasi zen, eta hura izan zen gabarrak Urumea ibaitik desagertzearen arrazoietako bat, Donostiako ahokaduran.






*Ortoargazkia 1956-1957. Amerikar hegaldia, B bilduma. Gabarrariek Loiola eta hondarra atzeratzen zuten lekuaren artean egiten zuten batez besteko ibilbidea (3 Km). 1. Zurriola zubia. 2. Santa Catalina zubia. 3. Maria Cristina zubia. 4. Loiola auzoa. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.*

*Ortoargazkia 1956-1957. Amerikar hegaldia, B bilduma. UTM 30N ETRS89 // X: 582822 m // Y: 4796965 m. Hainbat gabarra Zurriola (irudiaren goiko sektorean) eta Santa Catalina zubien inguruan. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.*



*Ortoargazkia 1954. Bi gabarra 300 metrora ibaian gora Maria Cristina zubitik. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.*



*Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A bilduma. Hainbat gabarra Zurriola (goian) eta Santa Catalina (beheran) zubien artean. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.*